

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILAIngurumen Sailburuordetza
Natura Ingurunearen eta Ingurumen
Planqintzaren ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIALViceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Medio Natural y Planificación
Ambiental

EBAZPENA, x Natura Ondare eta Klima Aldaketaren zuzendariarena, Euska Autonomia Erkidegoan usapal europarra (*Streptopelia turtur*) kudeatzeko plana jendaurrean jartzen duena.

Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko urriaren 10eko Aginduaren bidez, hasiera eman zaio Euskal Autonomia Erkidegoan usapal europarra (*Streptopelia turtur*) kudeatzeko plana onartzeko prozedurari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedura arautzen duen 6/2022 Legearen, ekainaren 30ekoa, 17 artikulua ezarritakoa betez, jendaurrean jartzeko eta administrazio publikoei eta gizarte-sektore interesdunei entzuteko epea ireki behar da, hilabete bateko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Horregatik guztiagatik, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 22.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoan usapal europarra (*Streptopelia turtur*) kudeatzeko plana jendaurrean jartzea, hilabete bateko epean, iragarki hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioz, dokumentazioa aztergai egongo da epe horretan, bai egoitza elektronikoan (https://www.euskadi.eus/web01-tramite/es/contenidos/informacion_publica/inf_1928258/eu_def/index.shtml) bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzan, jendaurreko ordutegian:

Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza

Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila

Eusko Jaurlaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Vitoria-Gasteizen, urriaren x.

Natura Ondare eta Klima Aldaketaren zuzendaria
ADOLFO URIARTE VILLALBA